


02

2021eko azaroa

A
alea

multigeneratibioaren garaia
LURRIKARA
GARA



IRAKURGAIAK

- ▶ **Azaroak 11, 12 eta 13an ospatu zen MarxFem Kongresutik ateratako hamar gogoeta.**
pikaramagazine.com/2021/11/importante-dejar-llamar-reproduccion-la-creacion-vida/
- ▶ **Eskuin mutur frantsesaren lider berria ezagutzeko artikulua Elizabeth Duvalen eskutik.**
ctxt.es/es/20211001/Firmas/37465/Eric-Zemmour-elecciones-presidenciales-Francia-ultraderecha-islamofobia.htm
- ▶ **Txileko hauteskunde presidentzialen inguruko analisisia Simon Rubiños Ceak egin a Erria aldizkarian.**
erria.eus/es/sinadurak/elecciones-de-noviembre-nuevos-liderazgos-para-un-nuevo-chile
- ▶ **Pello Otxandiano Erria aldizkarian testuinguruaz eta Ezker Abertzalearen estrategia politikoaz.**
erria.eus/sinadurak/marjinak-eta-disonantiak
- ▶ **Eskuin muturraren estrategia diskurtsiboen inguruko artikulua.**
elsaltodiario.com/unidas-frente-al-odio/proyecto-una-extrema-derecha-internet-batalla-cultural-libro-rosa-luxemburg



GOMENDIOAK

- ▶ **Glasgow COP 26 eta trantsizio ekologikoa hizpide Sortuko Lehenik Herria podcastean Jokin Bergara eta Ainhoa Intxaurrendietarekin.**
youtube.com/watch?v=iYHVFEjOG8g&t=423s
- ▶ **Jule Goikoetxea eta Elena Beloki MarxFem kongresuaz Naiz Irratian.**
irratia.naiz.eus/eu/info_irratia/20211117/marxismo-feminismoa-oinarri-guztion-emanzipaziorako-bidea-marraztu-du-marxfem-ek
- ▶ **Antonio Turieli elkarrizketa krisi klimatikoaren inguruan.**
youtube.com/watch?v=N2DFA-EX91A


ERREPRESIO POLITIKOA UNIBERTSITATEAN: ELKARBIZITZA LEGE BERRIA

Joanes Aranguren

Euskal ikasleriak betidanik izan ditu hamaika arrazoi unibertsitate eredua borrokatzeko, eta nahia baino, beharrezana izan da aurrekoa. Europako eredu neoliberala jarraituz, Espainiako eta Frantziako egungo unibertsitateek Euskal Herriko beharrei erantzuten ez dien unibertsitate elitistak eta merkantilistak bultzatu dituzte. Hauek, nola ez, ikaslegoaren beharrezanean jaramonik egin ez eta ikasleria erabaki guneetatik aldentzen saiatu dira gainera, erabaki organoetan interes pribatundun entitateetako karguak sartu dituzten bitartean, besteak beste.

Unibertsitate eredu hau borrokatzeko eta eraldatzeko orduan, errepresio politikoa nabaria izan da gure unibertsitateetan, eta gaurkoan, unibertsitateetarako errepresio politikorako neurri berriak ezartzera datoz. Manuel Castells unibertsitateetako ministroaren eskutik Elkarbizitza Legea aurkezten zaigu horrela. Elkarbizitza Lege honetaz gain, LOSU (Ley Organica del Sistema Universitario) berria ere datorkigu. Biak ala biak dituzte ikasleria antolatua aurkako hainbat eraso, baina Elkarbizitza Legean zentratuko gara momentuz, lege hau bere osotasunean unibertsitateetan gertatzen diren ikasleen arteko edo ikasleriarekin emandako gatazken konponbiderako erraminta baita.


Unibertsitateko Elkarbizitza Legea unibertsitateetan ematen diren gatazketan konponbide demokratikoak aurkitzeko nahia duen legea da, edo hori da saldu nahi digutena ikasleoi. Lege honek unibertsitateetan elkarbizitza komisio bat sortzea proposatzen du, zeinetan hezkuntza komunitate-



ko sektore guztien artean gatazken mediazio prozesu bat emango zen, erregimen diziplinatorko zigorrak ezarri baino lehen. Hau horrela bada ere, **mediazio prozesuaren izaera judiziala nabarmena da, eta erregimen diziplinatorkoan ezartzen diren zigorrak desproporzionatuak.** Hiru falta multzo aurkezten dira, falta multzo bakoitzak bere zigor mota duenak. Faltza oso larriak, larriak eta arinak daude. Faltza oso larrietako zigorra 2 hilabetetik 3 urterainoko kanporatzea eta matrikula eskubidearen galera partziala da.

Larrietan hilabetearainoko kanporatzea. Adibidez, **hiru urtez kanporatu ahalko gaituzte unibertsitatearen ondarea hondatzeagatik, errektoretzako hauteskundearen aurkako ekintzak egiteagatik edota unibertsitatearen osasun neurriak ez betetzeagatik,** besteak beste.

Hau horrela, nabaria da Elkarbizitza Lege berri honek unibertsitateko arazo eta gatazkei konponbide demokratiko bat ezarri baino, **erregimen diziplinatzaile bat ezartzea duela helburu.** Horrela, ikasleria antolatua desaktibatuta nahi du, ikasleriaren aurkako kriminalizazioa eta kontrola areagotzen delarik eta unibertsitate eredua aldatzeko aukerak minimizatzen direlarik. **Argi daukagu unibertsitate eredu honek ikasleek bizitzak eta ikasketak prozesuak prekarizatzen dituen bitartean ez dugula haien elkarbizitza onartuko.** Ikas baldintza duinak borrokatzea haien elkarbizitza desobeditzea delako, ikasleok desobedientzia!





Euskaraz bizi nahi dugu aldarria behin baino gehiagotan oihukatu du gure belaunaldiak. Behin baino gehiagotan egin ditugu barne interpelazioak, behin baino gehiagotan egon da gazteria jo-puntuan, gazteek ez dute euskaraz egiten esamolde arrakastasuaren ondotik. **Datuek eta inguruak badagolea beste berriktibazio bat digute, ordea.**

Pasa den urtean Gaztealdia izeneko dinamika egon zen martxan. Bederatzi gaztek zortzi egunez beraien egunerokoa euskara hutsean egiteko apostua egin zuten. **Egunerokoan bizi ditugun talka linguistikoak azalerarazi zituzten sare sozialen bidez, eta isla bat ikusi genuen gure jardunean.** Bigarren mailako herritarrik ez dugula nahi aldarrikatu dugu hainbat problematikei loturik, eta euskararekin gertatzen zai-

guna kontu bera da. Ezin dugu gure herrian, gure hizkuntzan bizi nahi dugulako zapal-

<< Euskaraz ari garenean, beraz, bigarren mailako herritar bihurtzen gara? >>

duta sentitu nahi, eta behar. Herritar duin batek bermatuta izan behar ditu zenbait eskubide, baliabide eta botere-egitura; izan medikua, hezkuntza... Horiek bezalaxe, **hiztun duin batek hauek bere hizkuntzan izatera bermatuta izan behar du.** Botere-egitura hauetan hizkuntza batean ezin jarduteak, hizkuntza horren bidez gizaratean euskaraz bizitzea ezin garatzea esan nahi du. Eta ondorioz, euskaraz ezin gara bizi. Hori izan zen Gaztealdiko gazteei gertatutakoa, ezin izan zutela beraien egunerokoa eus-

karaz garatu, hori da Euskal Herriko gazteon eguneroko ogia.

Euskaraz ari garenean, beraz, bigarren mailako herritar bihurtzen gara? Euskararen erabilerak ezin du norberaren hautuarekin lotuta soilik egon. **Euskalduntze estrategia berriek ezin dute euskararen erabilera norbanakoaren afera gisa kokatu, ahaldundutze pertsonal eta kolektiboak bultzatu behar ditugu.** Gainera, egun euskaraz egitearen hautua ez da askea, hautu hori baldintzatzen duten kanpo faktoreak ditugulako gure egunerokoan. Urratsa emateko beharrezkoa izango da komunitate gisa euskalduntzea. **Esperientzia ezberdinek erakutsi digute hizkuntzek komunitateak boteretzen dituztela,** eta beraz, euskararen hautuak euskal komunitatearen indartzearen eskutik etorri behar du.

Eta euskalduntze hori emateko, euskarari gurean duen balioa eman behar diogu. Hizkuntza ez dugu komunikatzeko tresna soil gisa ulertzen, duen balio komunikatibotik haratago doa, eta horren aitortza egitea

garrantzitsua da. Izan ere, **hizkuntzek izatez badute balio erantsi bat, badute konnotazio bat. Ezkerreko eraldaketa sozial bat emateko eta gure herriaren askapenerako euskara behar dugula uste dugu.**

Herri bulkada behar du euskarak, hori esan dugu hamaika eztabaida eta hausnarketetan. Berreuskalduntze fase berri baterako motore izateko gazteok ezinbesteko papera dugu. Hizkuntza gatazka azaleratu behar dugu 2022an ere, gatazka ez zegoen frankismoan, euskara debekatuta zegoen garaian soilik; gure belaunaldian ere ematen da gatazka.

Identitatearen eraikuntzarena izan daiteke b

<<Esperientzia ezberdinek erakutsi digute hizkuntzek komunitateak boteretzen dituztela>>

este gakoetako bat; askotan esan dugu nerabezaroan eta gaztaroan gure identitatea eraikitzen dugula, eta euskarak ere horretarako tresna izan behar du: garai likido honetan ezkerreko irakurketa positibo bat eman eta identitate berri hori berreuzgarrantzea dagokigu.

Euskararen kanpaldia egin zuten astebetetz NUPeko gazte euskaltzaleek. Argia da aldarria: **unibertsitate euskalduna,**

<<Hizkuntzek badute konnotazio bat. Ezkerreko eraldaketa sozial bat emateko eta gure herriaren askapenerako euskara behar dugula uste dugu>>

euskaraz ikasteko eskubidea. Horrekin batera, ezinbestean euskara plan bat jarri behar dela martxan azaldu zuten, euskararen errektoreordetza bat sortu behar dela, euskaraz kreditu gehiago eskaini behar direla eta langileek euskararen ezagutza bermatzea. Guzti horiek ikasleei trabak eta are, ezintasuna sortzen diete beren bizitza euskaraz garatzeko. Titularra argia da: "Unibertsitateak lehenago hauspotzen du ingelesa euskara baino".

Durangon abenduaren 6an egingo den mobilizazioa da gazteon ezinegonaren bigarren adibidea. Euskal Herrian Euskarazek Espainiako Konstituzioaren egunean deitu du ekimena, euskaraz bizitzeko Euskal Errepublika ezinbestekoa dela adieraziz. Lehen aipatutako **bigarren mailako herritar izatetik, hiztun duintateko ezinbestekoa izango delako gure Euskal Errepublikatik** izatea. Gazteak ere bertan izango gara, goizean goizetik gazte euskaltzaleon asanbladan. Belaunaldi gisa erantzukizun eta ardura badugulako.

Euskaraz bizi nahi dugu aldarrikatzeaz gain, hilabeteak dira euskararen arloari gaztetasu-

netik eta belaunaldi gida erantzuteko erronka guregain hartu genuela: unibertsitateetako taldeetatik, hizkuntza talka azaleraziz, gure espazioa eta guneetan aterki ideologiko berri-tu bateranzko eztabaidak eman eta barne interpelazioak eginez... **Baina batez ere saretuz, oraindik erantzunak baino galdera gehiago baditugu ere, badakigubidea dugula ekiteko.** Eta bide ekiteko gogoz gaude.





Ernai 2013 jaio zen, Euskal Herrian irekitzen zen errealtate berriari erantzun zion gazte antolakundea. Feminismoaren olatua hastapenetan zegoen, eta Ernaik mekanismoak jarri zituen beharraz jabetuta. Horrela, proiektu politikoaren baitan feminismoa kokatzeko erabakia hartu zuen eratze prozesuko eztabaiden ostean. Apustu garrantzitsua bezain borrokatua izan zen hura. Aipatzekoa da ere, ezker abertzale mailan abangoardia izan ginela horretan. Erabaki hark barne prozesu bate beharra ekarri zuen, formakuntza eta eduki teorikoei dagokion gabeziei aurre egin eta botere harreman, militatzeko moduen eta talde dinamiken errebisioa egin genuan. Orduan **proiektu politiko oso batekiko konpromezua hartu genuen norbanako zein kolektibo moduan.**

Eratze prozesuan harturiko konpromiso eta ardura horiekiko destentsionamendua egun ukaezina da. Geroz eta neska*¹ gutxiago ditugu arduetan, **gure arteko mota anitzeko indarkeria areagotu da, gaiaren sentsibilitate eta horrekiko militante ororen ardura izatetik neskon kontua izatera pasa da.** Elementu ezberdinak aipatu nahiko nituzke.

Lehenik, prozesua hasi zenetik, **sistematizazio eta errebisio mekanismorik ez egoteak eta transmisio faltak, gure jarrerren gaineko errebisioa nor bere eskuetan utzi da eta garrantzia politikoa kendu zaio.** Gainera mugimendu feministaren hainbat erronki erantzuten ibili gara: artikulazioa, greba feministak, neska* gazteon sorrera, EH V. Jardunaldiak, exigentzia handia eskatu eta antolakunde barruan ardura gutxiago hartzea suposatu zuen ere. Olatu honen indarraren aurrean, sistema kapitalista heteropatriarkalak ofentsiba oso bat (Indibidualismoa, kontsumo azkarra, aurpegi garbiketa) jarri zuen martxan mugimendu feministaren aurka, emaitza: mugimendu feministaren aurkako errepresio kasuak, gorroto mezuen zabaltzea, indarkeria matxistaren areagotzea, gazteriaren harreman toxikoen datuen larritzea. Hauek guztiak gugan eragina izan dute.

<< Zeintzuk dira antolakunde feminista bezala hartu beharreko neurriak?>>

Beraz, zeintzuk dira antolakunde feminista bezala hartu beharreko neurriak? Batetik, Feminismoaren baitan ematen ari diren eztabaiden gainean arreta jarri behar dugu, mugimendu feministaren atzetik joan beharrean, mugimendu feministarekin batera joan ahal izateko. Horietako eztabaida asko gure borroken ezaugarritzea eta ikuspegia iraultzera etorri direlako. Norabide honetan formakuntza eta autoformakuntza ezinbestekoa dugu, baita egun existitzen diren generoaren araberako jakintza arrakalak gutxitzeko.

Bestetik, gaia modu transbertsalean lantzen ahalegindu behar gara, **hitzetik ekintzetara** eramanez. Feminismoa munduan egon eta mundua irakurtzeko modu bat da, gure inguruaz zalantza egitera eramaten gaituen, dominazio-harremanak ikusi eta kontzientzia hartzera, gure buruen jabe izatera eta gure duintasunagatik borrokatzera gonbidatzen gaituen etengabeko ahotsa delako.

Amaitzeko, ezinbestekoa dugu antolakunde feminista eta mistoa garen heinean, **gu geu eraldaketarako subjektu bihurtzea, deseraikitze prozesuak abiatu eta boteretze eta aliantzak sortzea.** Baina ez hori soilik, antolakunde guztian errebisatu eta mekanismoak sortu beharko ditugu. Finean iraultza feminista berri baten beharra daukagu!

Zentzu honetan aitortza bat egitea gustatuko litzaidake antolakundeko nesko, Ernai barruan zein kanpoko eragileetan feminismoa txertatzen, tenkatzen eta borrokatzeagatik, bere gain hartu duten ardura konpartitzeko garaia da!

1 Neska* erabiliko dugu patriarkatuak zapaldutako subjektu politikoa barnebildu nahian.